

## Zikloturismo Kulturala



Hainbat lekutatik  
Martxotik urrira  
Irteera-ordua: 09:00etan  
Irteera-lekua: Arriagako aparkalekua - Forondako ataria

Deskubritu ezazu lurralde historikoaren kultura eta paisaia ondarea bizikletaz!

Gasteizko Txirrindulari Elkarteak antolatua Vital Fundazioaren laguntzaz, ibilbide lasaiak egiteko aukera hala nahi duten zale guztien eskura jartzen du programa horrek, eta gainera, familiakoekin eta lagunekin parteka daitezke, kilometro asko ez duten ibilbideak direlako, mota guztietako zikloturistak egin ditzaten.

Kuadrilletako, Udaletako eta Erdi Aroko Arabako turismo teknikariei esker, bisitaldi gidatuak egongo zaizkie ibilbideetan zehar dauden monumentu guztiei.